

LIBURUEN URRATSETAN

Aspaldian pentsatua nuen. Baina Peneloperen antzera jakatu dut. Egunez pentsatutakoa, gauz deuseztatzen nuen. Ohearen bero lasaiki bereganatzen ninduen.

Baina ez dut senarraren itxaropenean bizi beharrik. Ohearen beroak, kalearen usainak, iskanbilien hotsak, ametsen puskatzeak, oinetakoen urruteak. Hauze zen lantzen nuen alfonbratxoa.

Baina nere Mefistofelesek hotsegin dit: «Agindu huen eta ez hodi geroko geroan jardun».

«Liburuen urratsetan».

Miren Yone, Zeruko Argiak zuzendariak ez ote daki zein zaila den gaur egun Euskal Herriari idaztea? Zer bait definitiboa esan behar omen da. Eta gure asterokoek dinamika galitzen dute. Eta jakina da. Ezin gera zirkulo batean mugitu. Elipsean mugitu beharko dugu. Zirkuloaren edo elipsearen ardatza herria izan litezake. Baina elipseetan jokatuz, herriagandik urrutiratuko ginateke. Baina baita urratseta ere. Eta dinamika hortan, indar-berritze, kritika-berritze, katarsis-berritze hortan joko ote dugu?

Norbait elipsearen dinamika «flirteo» bezala har dezake baina ez dut uste hala denik.

Liburuen inguruan eta herriaren inguruan nere flirteo hortan. Flirteo izanen bai da. Eta jakina da elipseak ez duela ardatz bat, bi foko baizik.

Liburuen zibilizazioa.

Orri bat hartuko dut. Zigarro bat egiteko erabili dut. Gure herriko beldorriari su emateko erabili. Gure pekatu guztiak tinta beltzez zikitzenko erabili. Edo paperezko uxu zuri bat egiteko erabili.

Liburuen zibilizazioa.



Barojaren Inguruan (I)

Barojaren euskaltasuna edo arazo zahar baten alderdi berriak

Eztabaida luzatuz doa. Eta luzatuz joan beharko zenbait estruktura aldatu arte.

Gaurko nereak ez luke eztabaidaren mamia aurkitu nahi, reflextio bide batzuk agertu baizik.

Unamunori buuz planteatu zen lehendabizi arazo hau. Eta liburu edo bat eskini itzaion. Xabaldor Mitxelena bere «Unamuno eta abendats» liburuk nahiko argi emanen liguke arazo honetaz. Halare, ezin uka arazoa era ezberdinetara azaltzen dela Barojarekin. Unamunorekin eztabaidatzen zena bere aberri-mina zen. Edo bere euskaldun-izate politikoa. Orain badirudi Barojarekin bere euskaldun-izate literarioa aztertzen dela. Eta hemen ditugu arazo guztiaren oinarri beharrezkoenak.

IRITZIAK

Arteche, Pelay Orozco, Aizarna, Pilar de Cuadra eta beste izen haundi edo txikiak idazle batzuk mintzatu dira arazo honetaz. Eta Baroja euskal idazle dela erabaki.

Pelay Orozco eta Aizarnaren iritziak dira ezagunenak eta berriekin jardunen naiz. Ongi dakite hauek adjetiboen garrantzia. Horregatik ez dut uste «euskal idazle» edo «idazle euskaldun» esaten berdin denik. Aizarnak joan zen asteetan «La Voz de España» egunkarian argitaratuko idazlan batek «Baroja, escritor vasco» zuten izenburu. Baina, eta hemen idazle haren paradoja, denek erderaz idazten dute. Pelay Orozcoren erderazko lanak nahiko interesgarriak dira baina ez euserazkoak. Hauek XIXgarren gizaaldiko eta Barojak berak salatzen zuten folkloereria baten usaina dute. Berdin gertatzen zitzaion Artetxen lanei ere. Didaktiko jeneroak ez zirenei berriak behin. Ez ote Baroja aurrera aterata nahi hortan bere buruak ere gudi batean sartu nahi izateak?

Gaur gure herria aukera serio batzuen herri bihurtu zaigu. Eta egia esan sortzen diren zenbait

arazo, aukera batzuk garbi ez azaltzeagatik sortzea litekeena da.

Araoa, beraz, politikoa da. Bestalde, Larresorok eta Kintanaren eustean direla asko eta asko aitortu behar. Ni ere bai. Nolabait, «Jakín»-go axioma hartan finkatutako iritzia litzake: «Ez dago Euskal Herriarik euskerarik gabe». Eta, hariari jarraituz, arazoi lukete Kintanek eta Larresorok. Baina nere ustez, eztabaida honen ez du irtenbiderik berezakea batzuk egiten ez diren artean.

Leihio este batetik gauzak zabal ikustea posible litzake. Eta posibletasun hori eztabaidaren bi zatietatik dute. Baina betiere leihoa estuegia litzake.

Zabal ditzagun une batean bederen, arazo politikoa honen leihok.

KRITERIO POLITIKOAK

Hauze litzake berezketaren lehen alderdia. Aipatu dut «Jakín»-en iritzia. «Ez dago Euskal Herriarik euskerarik gabe». Hitz hauek politikori diru erabat eta politikan oinarriturik idatzi zituen J.M. Torrealdayko. Politiko kriterio batek balio ote du literaturako gertakizun edo egoera edo fenomeno bat agertzeko?

Erantzuna zaila da. Literatura, harma politikoa dugu. Baina askatasunik gabeko harma ote den galdetu beharko. Lotura hori beharrezko ote duen galdetu behar. Baiezkoan naiz. Hegelekin ados nator jakintza «Gurpilen gurpil» dela esaten duenean. Halare, ez dago garbi gurpil bakoitzaren askatasun-maila. Eta ez dut nik arazo hau zuzenduko. Nahiko arazo da Platon leiza-zulokerietan jardun zitzaizutenik.

Gure gaurko arazoaren harian, Baroja azterterakoan, alderdi bitetik aztertzen dugu. Larresorok eta Kintanek bere eraiaketa politikotik begiratzen due auzia. Eta erabakitzen. Hau kontuan harturik,

arazoi dute. Baroja ez da euskal idazle. Politiko begiramenak dena kutsatu du. Eta, noski, literatura ere bai.

Baina Pelay Orozco, Aizarna eta gainontzekoak ez dira inoiz ere konformatze batera iritsiko puntu honetan Larresoro eta Kintanarekin. lehen mailako konformatzea, elkar ulertzea falta bai zaie: Elkarzte politikoa. Horregatik nere lehendabiziko hitzak: «Eztabaida luzat zen ari da. Eta luzatuz joan beharko zenbait estruktura aldatu arte».

Elkartu ezina, «euskal» ideian elkartzen ez direlako. Elkartzen ez gerralako. Beraz, gutxienez kriterio literarioetara jo beharko dugu zenbait argitzen ote den ikusteko.

KRITERIO LITERARIOA

Barojaren estilon finkatzen da zenbait. Baroja euskal idazle dela adierazteko. Euskeraz idazten duten asko baino euskaldunagoa omen da Baroja.

Eta hemen haziaren kaxoa. Nahiko al da Barojaren estilia euskalduna dela esatea. Baroja euskal idazle dela adierazteko? Ni ados nago Oteizarekin Barojak euskal estilioa duela frogatzeko erabiltzen dituen argumentoenekin. Baina Oteizak bere intuizioa ez du literaturan bertan finkatu, artearen gainontzeko mailetan baizik. Eta gainontzeko maila hauek ez dute hizkuntza baten beharrik. Beraz, Oteizaren iritzia erdi bidekoa litzake. Gauza oso onak azaldu ditzake baina ez digu hauria erabaki. Literaturan oinarritutako azterketa bat behar genuke.

Eta orain galdera bat Pelay Orozco eta Aizarnari: Euskal literatura aztertu al duzue euskal estilioa zer den adierazteko? Adibidez, Axularren edo Mogelen esuek ba al dute Barojarenaz zerikusirik? Sintaxis alderdik berdin-tan batzuk nahiko al dira «estilio» bat dagoela adierazteko? Bestalde, «euskal estilio» aipatzen duzuenaren, ez duzue kriterio literarioerik ere erabiltzen? Nolabait esateko, estilioa pertsonal bat al da, eta hemendik al datoriko Barojari bere «euskal estilioa»?

Badu euskal sena ere, eta nahiko da Euskal Herriaz idatzitako bere edozein obra, hura idatzi duena euskaldun dela konturatzeko. Baina Baroja nungoa den jakinen ez bagenu «La lucha por la vida» irakur orduan euskaldun zela konturatu ote ginen?

Azterketa luza nezake. Joyce, Beckett, Kafka berek ez al dituzte bere ama-hizkuntzetatik zenbait eta zenbait karakteristikak hartu?

Baina hemen ixten dut nere leihaila.

«Aizarnak txapeltxikitat joko nauela bainan gehiegi kezkatu gabe, Anjel Lertxundi

Gaurko marxista problema eta joeren informazioa

Marxismoa denborarekin batera jartzeko ekinaldian bi eginkizun nagusi dago: informazioa eta kritika. Bigarrena beste batetarako utziko dugu.

Informazioa berriz, bai problema eta bai mundu guztiko joera inportanteena behar dugu. Ez joera marxista bakarrik. Ez bait dago marxismoa bakanean hartzerik, pentsamendu europar moderno guztiaren tradizio baruan baizik. Ez dadukagu Rikardo Arregiren asmoa mehatzerik eta hestuzerik, tradizio honen puntu bati bakarrik atxikiz: kultura honen zabalero guztiaz jabetu behar dugu. Orduan bakarrik edukiko du gure marxismoak zer eta zeri eragin.

Lehenbait behar da Garatek Marxen marxismoaren hitzaurrean agindutako historia, Marxez gerozko marxismoarena. (Bigarren liburuaren agindutakoa ez gutxiago).

Informazio premia hautemanik du euskal literaturak Sorketa lanaren beharpenak eta azter-saioen goraitzek ez du besterik adierazten. Azkeneko boladak eta lasterrerrako aginduta dagoen euskal prozedurari begiratu ere informazio-xede horiekintze dabilela ikusten da. Eta informazioarekin batera kritikarik ere ez da falta.

Hala, esaterako, R. Arregiren Politikaren atarian eta Garateren Marxen marxismoa, nolabait ere bai Mendebaleko ekonomiaeren historia eta Soziologiaren hastapenak: oinarri liburu denak. Aipatu beharrezkoa da hemen Marxen Lan alokatua eta kapitala, X. Kintanaren euskeratua.

Hizkuntza arloan hori dira: X. Kintanaren Linguistika orain arte eta Larresororen Hizkuntza eta Pentsakera, Gaur-en Euskara gaur-ekin batera hartzekoak.

Nazio arazoan Garateren Marx eta Nazioa-ekin batera ezagutu beharrezkoak irake hizkuntzari buruzkoak ere. Ta agian baliagarri gerta liteke nire Hizkuntza, Elnia ta Marxismoa. Guztiz ezagutu beharrezkoak Euskal Herriko ekonomiaz G. Ansolek egindako azterpena da.

Erlijio arazoan Pagolak Marxen erlijio kritika aurkeztu digu, eta marxista modernoren batzuek erlijioaz dertzatena bezalaxe filofsia sobietarraren erlijio kritika ortodosoa ere, ezagutarazi izanak dira euskeraz. Gal honiaz ez dira garrantzi txikiagokoak JAKIN-en Kultura eta Pedea eta Pedea Haurzapean. ETOR-ek aginduta: Jainkoa eta gizona.

Langilerien arloan urri samar gabiltza: Mikel Ugaldere zur diogu dagoen guztia, alergia Langileria historiar zehar.

Ekonomiaz, klase teoriak, e.a. ez dago ezer teoria modernoetaz.

Gaurko joeren batzuen informazioarako badugu zenbait: F. Fanonen Afrikar iraultzaeren alde, Dobben Sozialismoaren frogantzak, al-dizkarietako artikulu asko. X. Mendiguren eskerrak Europako ezker herria ezagutzeko aukera ere aurki izanen dugu. Joseba Arregik Kolakowski filosofo polakoa euskeratu digu. Baina gaurko joerei, aldez edo moldez, ia liburu guztioan begiratzen zaie.

Beraz, egon desente dago.

Lan hauei sistimatikoki jarraitu beharra dago. Problema banan-banan eta sakon ikertzuz Alegia, batzuen ustez, ez da komeni hainbeste problemarik argitara ateratzea. Eritziak eritzi eta buru hainbat aburu, bakoitzak ikusiko du zela jardun: nire ustez, batik batik, zintze jokatzeotan halaxe jokatuko beharra dago.

Beraz ere zenbait tesi «berri» iraitzen barrietatik maiz askotan ez du ortodosiarik itxuragabea berritasun itxura piska batekin apaindu besterik egiten. Eta hau

mila modutan gertatzen ari dela suma ditek. Adibidez, euskal al-dizkari batelan, serio-serio, R. Aron teoria ekonomiko marxisten aldekarri bezala aduzitu izan da. Gaudry, etc. marxista heterodosoak eta pentsalari moderno estrukturalistak sarrigie erabiltzearen kontra, gainera: marxista heterodosoak beste «jatorrik» ere ba dela eta jakintsu modernoen artean marxistari ere badela esan bezala... Ez dago dudarik: Aronek eginkiz duke noizpait nonbait teoria ekonomiko marxisten gorespen bat. Baina, oro har, hau informazioerik txarrenean eredu ona dugu: inork egin izatekotan Aronek kritikatu bait ditu teoria soziologiko eta ekonomiko marxistak, urte-urte marxistotik geroz eta gehiago urrunduz. Aronek gaur bere burua «liberal erfor-nazale» agertzen du, eta ez du teknikaeraren epada ekonomiazko iraultzaeren sinesten. Ez dakit deabrua Beelzebubekin iraitzea inoiz burbide ona izan zenik. Informazio onik behintzat ez da sekula izan.

Beste adibide bat: literatura eta artearen klase-lankeri buruz makina bat sinplexiera zabaldu da. (Artea sozialki baldintzapezuta egotea, berriz, ez da batera marxismoaren gauza espezifikoa: arte soziologiarik burgesenak ere bada-ki hori). Gero edozein Autore modernori sinplexiera horietan konfirmazio dirudiena hartzen zaio, eta horra delako Autore sinplexiera haiei irakase bihurtu. Irakurleari ezkatuta egiten zaio, Autore hura hain zuzen, sinplexiera haiekin kritikan biziki ahaletindutakoa dela. Edo-ta, irakurri ahal izan dugu beste adibide bat emateko: errealismoaren teoriko bikainen bezala Lukács aipatu, eta behar-laxe errealismoaren teoria praktikan jarri duen erakusmeneko Autore zehala Brecht eman. Lukács eta Brecht bateratzea baino errazago litzake, halare, Lukács eta San Juan de la Cruz bateratzea, Lukácsen edozein ezagutzailek dakienek.

Hori dena tranpa hutsa da. Nork bere ideiak autoridatez kargatzeko nork behar esan nahi lukeana besteren ahotan jarritza, eta jarri ere gezurrer egin. Guk nahi duguna inork esaten ez badu, esan dezana ere asmatu egin behar bait da, inondik ere. Azkeneko bi urte honetan erruz ikusi ahal izan da halakorik.

Teoria batzuen zuzentasuna kosta ala kosta salbatzeko amarru horiek baino egokiago iruditzen zait problemak larregorrian agertzea. Idazlea bera, aldez, hobeto dago abogadurik bage, halako faltsokien baino. Irakurlea behar-bada hasieran nahastu egingo da. Baina mundua ez zaigu bari akabatuko, eta lanean jarraituz sortuko da berriz ere argia. Saizar-bitoriarena aipatuko dute: «Ezin egin ditekera zera da, problema sinplifikatu, problema!».

Horregatise uste dut, informazioak eta kritikak eskuz-esku ibili beharko dutela. Ta informazioaz batera egin beharrezko kritikari nik, Euskal Herria, eginkizun berezi bat sumatzen diot: XIX mendearrekin kontuak garbitu. Hau oso zaila da, puntuz-puntu eta guztiz kritiko izanez bakarrik burutu bait ditek.

Izan ere, XIX mendearren mendean gaude, nahitaez. Baina ez dago XX mendean bizi eta XIX bezalaxe pentsatzen segitizter. Zer segitu eta zer baztertu erabaki beharra dago. Eta ez dago aharterik marxismoa XIX mendean eta XIX mendeko problematika eta pentsa-bideei zegozkien moduan sortua dela.

Jose Azurmendi

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba' dezue ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabili beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezue orosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabo bakarra Etxeko-andrearentzat neskaerik egokia.

JABON LAGARTO

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak: eskatu salneurriak (deskuentoa)

Avda. de Francia, 1

— IRUN —